



INURRI BIDAIA

Inurritxoa beldurtuta zegoen, lagunak begien bistatik galdu eta bakarrik sentitzen zen.

- A zer zoritxarra! Bakarrik utzi naute- zioen negarrez, alde batera eta bestera begira zebilen bitartean.

Han zebilen sugandila batek galdetu zion:

- Zer dela eta ari zara negarrez?

- Galduta nago, nire taldekoek alde egin dute eta ez ditut aurkitzen. Beldur naiz, ez baitakit bakarrik etxera itzultzen.

- Ez kezkatu, aurkituko ditugu, zatoz nirekin!

Inurritxoa hain txikia zenez, sugandilaren gainera igo zen.

- Goazen basoan zehar ea norbaitek ikusi dituen zure lagunak.

Errekatxo batera iritsi ziren eta igel batek galdetu zien:

- Nora doa inurritxo bat sugandilaren gainean?

Sugandilak esan zion inurria beldurtuta zegoela lagunak galdu zituelako eta lagundu nahi ziola.

- Nik ere lagundu nahi dizuet; igo zaitezte nire gainera, ibaiaren ertzetik joango gara ea norbaitek ikusi dituen zure lagunak. Ez egin negarrik, sugandila eta bion artean aurkituko ditugu eta.

Sugandila igelaren gainera igo zenean, inurria ikaragarri poztu zen, han goitik ikusten zena paregabeko ikuskizuna baitzen.

- Zenbat gauza ikusten ditudan hemendik! Zein handia den hau guztia!- zioen txunditurik, begiak zabal-zabalik ziutela.

- Nora doaz inurria eta sugandila, igelaren gainean? - galdetu zien inguruan zebilen dortoka batek.

Eta orduan istorioa kontatu zioten.



- Nik ere lagundu nahi dizuet, inurritxo. igo zuek hirurok nire oskolaren gainera, badakit non egon litezkeen inurriak.

- Baina zu oso motela zara! - esan zue sugandilak.

- Baina zaharra naiz eta oso jakintsua. Nik badakit zein diren inguruko animalien ohiturak eta badaukat inurriari laguntzea inurritegia topatzen.

Inurria zeharo txundituta zegoen, ezin zuen txintik ere esan. Igela dortokaren gainera igo zen, hara zer ikusi zuen orduan handik!: ibaia, lorez estatilatko zelaiak, mendiak, urrutiko etxeak... Ezin zuen imajinatu ere egin mundua hain handia izango zenik.

"Nire lagunak hau guztia ikusiko balute" pentsatu zuen aineka ari zen bitartean. Jadantik ez zuen beldurrik somatzen; izan ere, mendian aurkitzen zituen animalia guztiak bre kideak topatzen laguntzeko prest zeuden. "Nire lagunak egoera dibertigarri honetan ikusiko banindute!..."

Bidean inurri ilara bat topatu zuten eta dortokak galdetu zien:

-Ez zarete ba ibiliko zuen lagun baten bila?

- Bai, bai! - erantzun zuten negar zotinka.- Orain dela gutxi galdu zaigu, eta ez dugu etxera itzuli nahi aurkitu arte, hain beldurtuta egongo da, gaixoa!

- Eta zer dela etadaramazu oskolaren gainean igela? Eta igelak sugandila? Eta sugandilak.. gure laguna?

Zur eta lur zeuden ikusten ari zirena ikusita.

- Lagunak, a zer poza! Lagun hauei esker aurkitu zaituztet eta gainera, mundua zein handia den jakin dut. Beldurtuta nengoen, bakarrik sentitzen nintzelako baina, gero sugandilak, igelak eta dortokak lagundu didate. Dortokak, jakintsua eta buru onekoa izanik bazekien non egongo zineten.

Lehenengo igela dortokaren gainetik jaitsi zen, ondoren sugandila igelaren gainetik eta azkenean inurria sugandilaren gainetik. Inurriek esan zioten handik aurrera lagun ondoan, urrundu gabe, ibiltzea komeni zitzaiola, gal ez zedin; jarraian, animaliei eskerrak eman zizkieten.

Harrezkero, inurria lagun ondoan ibili ohi da, baina noiz edo noiz ingurura begiratzen du, ea bere gainean paseatzera eramango duen lagunik ikusten duen.

INURRI BIDAIA



1

Zer testu mota da?

- ☐ Ipuina,
- ☐ Albistea.
- ☐ Alegia.
- ☐ Errezeta.

2

Nola sentitu zen inurria lagunak begien bistatik galdu zituenean?

- ☐ Pozik.
- ☐ Beldurtuta.
- ☐ Urduri.
- ☐ Haserre.

3

Zerk kezkatzen zuen inurritxo?

- ☐ Ez zekien etxera bueltako bidea.
- ☐ Lagunek bakarrik utzi zutela uste zuen.
- ☐ Sugandilaren beldur zen.
- ☐ Afalordurako ez zela etxera itzuliko.



4

Sugandila igelaren gainera igo zenean, inurria asko poztu zen. Zergatik?

- ☐ Han goitik mundu zabal eta polit bat ikusten zuelako.
- ☐ Han goian oso handia sentitzen zelako..
- ☐ Bi lagun irabazi zituelako.
- ☐ Bere lagunak aurkitu zituelako.

5

Aurrerago dortoka batekin topo egin zuten.

- ☐ Dortokak ez zuen ezer jakin nahi izan.
- ☐ Dortokak atzetik jarraitu zien.
- ☐ Dortoka ziur zegoen non inurriaren lagunak non zeuden.
- ☐ Dortokak ere lagundu nahi izan zion inurriari..

6

Zerk kezkatzen zuen inurritxo?

- ☐ Ez zekien etxera bueltako bidea.
- ☐ Lagunek bakarrik utzi zutela uste zuen.
- ☐ Sugandilaren beldur zen.
- ☐ Afalordurako ez zela etxera itzuliko.



7

Sugandilak berehala esan zion baietz dortokari

- ☐ Ez da egia. Motelegia zela uste zuen.
- ☐ Bere gainera igotzen uzteko eskatu zion dortokari.
- ☐ Inurriak konbentzitu zuen sugandila.
- ☐ Ez inurriak, ez sugandilak eta ez igelak ez zioten jaramonik egin dortokari.

8

Zer erantzun zion dortokak sugandilari?

- ☐ Zuk uste duzuna baina arinagoa eta azkarragoa naiz.
- ☐ Zaharra naiz bai, baina baita jakintsua ere.
- ☐ Berdin zait, lagundu nahi dizuet..
- ☐ Egunero laguntzen diet inurriei etxerako bidea topatzen.

9

Igela dortokaren gainera igo zenean zer ikusi zuen inurriak?

- ☐ Lagunak ikusi zituen berehala.
- ☐ Zelai loretsu eta zabal bat.
- ☐ Inoiz ikusi zuen inurritegirik handiena.
- ☐ Baratza dotore eta handi bat.



10

Nola sentitzen zen inurria dortoka, igela eta sugandilaren gainean?

- ☐ Oso pozik, topatu zituen animalia guztiak laguntzeko prest zeudelako.
- ☐ Altuegi zegoen eta beldurtuta sentitzen zen.
- ☐ Triste lagunak ez zituelako inon ikusten.
- ☐ Oso pozik oso altu zegoelako.

11

Zer esan zioten inurri lagunak inurritxoari?

- ☐ Ez zutela bera bueltatu zedin nahi.
- ☐ Handik aurrera, saiatzeko ez galtzen.
- ☐ Erakusteko beraiei ere mundu zabal hura.
- ☐ Joateko sugandila, igela eta dortokarekin bizitzera.

12

Ilnurriaren lekuan egongo bazina, zer egingo zenuke?

- ☐ Negarrez hasi eta bertan geratu lagunak etorri zain.
- ☐ Beldurrik gabe, zu bakarrik lagunak bila joan.
- ☐ Ingurukoren bati laguntza eskatzen saiatu.
- ☐ Lasai-lasai itxarongo nuke nire bila etorri arte.